

1. ES6 sintaxia erabiliz, Puntu izeneko klase bat implementatu, bi dimentsiotako espazioan dagoen puntu bat irudikatzen duena.

Puntu batek bi atributu ditu, `x` eta `y`, metodo eraikitzaitik pasatuko dizkiogunak. `batu()` izeneko metodo bat ere badu, parametro gisa beste puntu bat hartzen duena eta emaitza gisa bi puntuen batura ematen duena. Alegia, beste puntu berri bat bueltatzen du, non `x` balioa bi puntuen `x` balioen batura den (eta gauza bera `y` puntuari dagokionez.)

Beraz, kode hau exekutatzean:

```
console.log(new Puntu(1, 2).batu(new Puntu(2, 1)))
```

Pantailan honako emaitza jaso behar dugu:

```
Puntu{x: 3, y: 3}
```

2. Gehitu `hurrengoa()` izeneko metodo bat `kontagailu` objektuari. Metodo horrek kont aldagaiaren uneko balioa itzuli behar du eta unitate batean handitu (erabili `++` eragilea)

```
let kontagailu = {  
    kont: 0  
}
```

```
[zure kodea hemen]  
}  
  
console.log(kontagailu.hurrengoa())  
// → 0  
console.log(kontagailua.hurrengoa())  
// → 1  
console.log(kontagailu.hurrengoa())  
// → 2
```

3. `map()`, `filter()` eta `reduce()` programazio funtzionalan asko erabiltzen diren JS Array klaseko hiru metodo dira. Hemen ikus dezakezu beraien oinarritzko erabileraren adibideak:

<https://medium.com/poka-techblog/simplify-your-javascript-use-map-reduce-and-filter-bd02c593cc2d>

Ariketa honetan `filter()` eta `reduce()` erabili nahi dugu arazo honen soluzioa aurkitzeko:

Honako objektu literala emanik (`biltegia` izenekoa):

```
const biltegia = [  
    {mota: "garbigailua", balioa: 5000},  
    {mota: "garbigailua", balioa: 650},  
    {mota: "edalontzia", balioa: 10},  
    {mota: "armairua", balioa: 1200},  
    {mota: "garbigailua", balioa: 77}  
]
```

```
let guztiraGarbigailuenBalioa = zure kodea hemen;  
console.log( guztiraGarbigailuenBalioa ); // 5727 erantzuna espero da  
  
filter() eta reduce() erabili biltegiko garbigailuen balio totala lortzeko.
```

4. Gezi funtzioa (*arrow function*) => ES6 estandarrak ekarri duen eta oso preziatua den funtzioa bat da. Irakurri gehiago beraren inguruau hemen: <https://www.sitepoint.com/es6-arrow-functions-new-fat-concise-syntax-javascript/>

Jarraian, hurrengo kodearen errefaktorizazioa egin arrow funtzioa erabili dezan:

```
biltegia.forEach( function(item) {  
    console.log(item.balioa);  
});
```

5. Hirugarren ariketaren errefaktorizazioa egin arrow funtzioa erabili dezan.